LH5 ETA LH6 IKASLEENTZAKO LEHIAKETA

EMAKUME ZIENTZIALARIEN LEHIAKETA

Oinarriak

LABORATORIUM

ZTB Zientzia Teknologia Berrikuntza Bergara
ztbergara.eus

EPEA	SARI-BANAKETA	NON
2027ko urtarrilaren 29a	**Otsailaren 11, 11:30etan**	**Laboratorium Museoa, Bergara**

ZTB jardunaldien barruan antolatzen den lehiaketa da. Lehen Hezkuntzako ikasleen eta irakasleen arteko lankidetza-proiektua da eta helburu hauek ditu: emakume zientzialarien erreferente historikoei balioa eta ikusgaitasuna ematea, emakumeek zientziaren garapenean egindako ekarpenak ezagutaraztea, genero-estereotipoak gainditzea eta neska zein mutilen artean zientziarekiko interesa eta bokazioak sustatzea.

OINARRIAK

1 PARTE-HARTZAILEAK

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

Lanak taldeka egingo dira, gutxienez 3 eta gehienez 5 ikasleko taldeetan. Talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Ikasle bakoitzak talde bakarrean parte hartu ahal izango du; beraz, ikasle bera ezin izango da bi taldetako kide izan.

Ikasgelaren antolaketa edo bestelako arrazoi pedagogikoak direla eta, taldeak adierazitako gutxieneko edo gehieneko kopuruetara egokitu ezin badira, antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko da izena eman aurretik, egoera aztertu eta taldearen osaera adosteko.

2 GAIA

Talde bakoitzak emakume zientzialari bat aukeratu beharko du, eta haren bizitza, ibilbidea, testuingurua eta zientziari egindako ekarpenak ikertu eta aurkeztu.

Aukeratutako zientzialaria edozein zientzia-arlotakoa izan daiteke: Fisika, Kimika, Biologia, Matematika, Ingeniaritza, Teknologia, Astronomia, Medikuntza edo beste edozein diziplina zientifikotakoa.

3 SORMENA ETA FORMATUA

Talde bakoitzak bere lanaren formatua libreki aukeratu ahal izango du. Ez da formatu jakin bat lehenetsiko; aitzitik, aukeratutako formatuak proposamenari egiten dion ekarpena, haren originaltasuna eta komunikatzeko gaitasuna hartuko dira kontuan.

Besteak beste, honako formatu hauek erabil daitezke:

- Posterra edo infografia.
- Marrazkia, collagea edo ilustrazio zientifikoa.
- Eskulana edo maketa.
- Komikia edo ipuin ilustratua.
- PowerPoint edo bestelako aurkezpen digitala.
- Bideoa edo elkarrizketa grabatua (2 minutu gehienez).
- Podcasta edo audio-formatua (2 minutu gehienez).
- Antzezpena edo bestelako proposamen eszenikoa (2 minutu gehienez). Bideo-grabazio bat entregatuko da.
- Edo proposatutako beste edozein formatu, betiere lehiaketaren helburuekin bat badator.

```
Ez da beharrezkoa lana formatu digitalean aurkeztea.
```

Formatuek balio bera izango dute, eta ez da formatu jakin bat erabiltzea berez sarituko. Horren ordez, edukia eta ideia aukeratutako formatuan nola garatu eta komunikatu diren baloratuko da.

4 LANAREN EDUKIA

Aukeratutako formatua edozein izanik ere, lanak gutxienez honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

1. **Biografia:** nor izan zen eta nolakoa izan zen haren ibilbidea.
2. **Testuinguru historikoa:** zer garaitan eta zer egoeratan garatu zuen bere jarduera.
3. **Lorpenak eta ekarpen zientifikoak:** zer ikertu zuen eta zer ekarpen egin zion zientziari.
4. **Berdintasunaren, aniztasunaren eta ikuspegi intersekzionalaren inguruko gogoeta:** aukeratutako zientzialariaren ibilbidea eta ekarpenak bere testuinguru sozial, historiko eta kulturalarekin lotzea, eta zientziaren munduan eragina izan dezaketen desberdinkeriak eta oztopoak aztertzea (generoa, jatorria, arrazializazioa, klase soziala, desgaitasuna eta beste batzuk).

Informazioa ikasleen adinera egokitu beharko da, eta garrantzia emango zaio informazioa ulertu eta norberaren hitzekin azaltzeari, informazioa kopiatzea baino gehiago.

5 BERDINTASUNA ETA IKUSGAITASUNA

Lehiaketak emakumeek zientziaren garapenean egindako ekarpenak ezagutarazi eta ikusgai egin nahi ditu, emakumeen aniztasuna eta bizi izan dituzten errealitate desberdinak kontuan hartuta.

Era berean, zientziaren munduan genero-estereotipoek eta beste desberdinkeria eta bazterketa batzuek izan duten eta duten eragina aztertzea sustatu nahi du. Horretarako, ikuspegi intersekzionala txertatzea proposatzen da, emakumeen esperientziak ez direla homogeneoak ulertzeko eta zientziaren historian ikusgaitasun txikiagoa izan duten pertsonak ere ezagutarazteko.

6 BALORAZIO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak honako irizpideen arabera baloratuko ditu lanak, 100 punturen gainean:

BALORAZIO IRIZPIDEA	PUNTUAK
Eduki zientifiko eta historikoaren kalitatea Informazioaren zuzentasuna, testuingurua eta zientzialariaren ekarpenen azalpena.	25
Ikerketa eta ulermena Informazioa bilatzeko, hautatzeko eta ulertzeko egindako lana; edukia norberaren hitzekin azaltzeko gaitasuna.	20
Originaltasuna eta sormena Proposamenaren ikuspegi propioa, ideia originalak eta baliabide sortzaileen erabilera.	15
Komunikazioa eta argitasuna Mezua modu argi, ulergarri eta erakargarrian transmititzeko gaitasuna.	10
Talde-lana eta inplikazioa Taldeko kideen parte-hartzea, elkarlana eta lana antolatzeko modua.	10
Berdintasunaren ikuspegia eta gogoeta pertsonala Emakumeek zientziaren historian izan duten presentzia eta ekarpena ikusgai egitea, genero-estereotipoei buruz hausnartzea eta/edo aukeratutako zientzialaria gaur egungo berdintasunarekin lotzea.	20
GUZTIRA	100

7 IZENA EMATEA

Izena emateko, irakasleak e-posta bat bidali beharko du **laboratorium@bergara.eus** helbidera, ikastetxearen izena, irakaslearen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa, maila eta talde kopurua adierazita.

8 LANAK BIDALTZEA

Lanak **laboratorium@bergara.eus** helbidera bidaliko dira, taldeko kide guztien izen-abizenak adierazita.

Lan fisikoak aurkeztuz gero, Laboratorium museora ekarri beharko dira.

9 AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko azken eguna **2027ko urtarrilaren 29a** izango da.

10 EPAIMAHAIA

Epaimahaia Bergarako Udaleko Laboratorium Museoa, Berdintasun eta Komunikazio zerbitzuak, Garapen zerbitzua, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, UNED eta NDANK NDANK taldeko kideek osatuko dute.

11 SARIA

Talde irabazlearen taldekideek opari-paketea jasoko dute eta ikasgela osorako Laboratorium museoko jarduera bat.

12 AURKEZTUTAKO LANEN HEDAPENA

Onartutako lanak Laboratorium Museoan, museoko webgunean eta sare sozialetan erakutsi edo zabaldu ahal izango dira, betiere egileen izenak adierazita.

13 SARI-BANAKETA

Sariak **otsailaren 11n 11:30etan** banatuko dira Laboratorium museoan.

14 LANEN KONTSERBAZIOA ETA ERABILERA

Aurkeztutako lanak digitalki Laboratorium Museoaren funts dokumentalean gorde ahal izango dira, eta museoak bere jarduera hezitzaileetan, sare sozialetan eta bestelako hedabideetan erabili ahal izango ditu, betiere egileak behar bezala identifikatuta. Lan fisikoak sari banaketaren egunean bueltatuko dira.

15 OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.

Oinarri hauen interpretazioan edo aplikazioan sor daitezkeen zalantzak lehiaketaren antolakuntzak eta epaimahaiak ebatziko dituzte, eta hartutako erabakiak apelaezinak izango dira.

DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko dira, lehiaketa kudeatu eta gauzatzeko. Indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango dira helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martin Agirre Plaza 1, 20570 Bergara.

Informazio osagarria eskuragarri dago Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan: www.bergara.eus/RAT. Tratamendua: 2205.